

1+1=bi  
benetako  
elebitasunaren alde





## 2005-2006 Ikasturteko ikasle kopurua hezkuntza ereduaren arabera Bizkaian

Hizkuntza eredia aukeratzeko orduan, guraso gehienek garbi adierazo dabe euren borondatea azken urteotan, D eta B ereduak dira aukeratuena. Hona hamen, adibide moduan, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako datuak, 2005/06 ikasturteari jagokozanak.

	HAUR HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA
Guztira	41.100	51.647
A eredua	3.465	7.957
B eredua	19.005	15.627
D eredua	25.948	27.353
X eredua	384	805

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila (behin-behineko datuak)

Aurreko datuak kontuan hartuta, Bizkaian, Haur Hezkuntzan matrikulatutako ume guztien %8,4 A ereduaren eskolatu dira, %29,2 inguru B ereduaren, %61,4 D ereduaren eta %0,9 X ereduaren.



Aurre-matrikula aukeratu dozuen ikastetxean bertan egiten da, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ezarritako epean.



## Zer eskaintzen dau Euskal Hezkuntza Sistemeak?

Euskal Hezkuntza Sistemearen ezaugarri nagusiak honako honeek dira: eskolatzea **borondatezkoa** da 0-6 urteko umeentzat eta **derrigorrezkoa** 6 urtetik 16 urtera artekoentzat, hiru ikas-mailatan bananduta: Haur Hezkuntza (HH),



0-6 urtekoentzat, bi ziklotan (0-3 eta 3-6); Lehen Hezkuntza (LH), 6-12 urtekoentzat; eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH), 12-16 urtekoentzat. Ikasleek gure erkidegoko **bi hizkuntza ofizialetan** (euskeraz eta gaztelaniaz) ikasteko aukerea dabe, hiru ikastereduren arabera: **A eredia** (irakasgai danak gaztelaniaz, euskerea izan ezik), **B eredia** (irakasgai batzuk euskeraz eta beste batzuk gaztelaniaz) eta **D eredia** (irakasgai guztiak euskeraz, gaztelania izan ezik). Ganera, ingelesa irakasten da lau urtetik aurrera.

Matrikula egiteko ohiko epean (zezeilean), familiek aukeratzen dabe umeentzako ikastetxea eta ikasteredua.

### info gehiago

Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza  
Kale Nagusia, 85. 48001 BILBO  
Tel. 944 051 000

## Zer hartu behar da kontuan seme-alabentzako ikastetxeea hautatzerakoan?

Umeen irakaskuntzan hizkuntza bat baino gehiago erabilten bada, gurasoek hainbat alderdi hartu behar dabez kontuan **ikastetxea** hautatzeko unean, besteak beste ikastetxean hizkuntzok noz eta zelan erabilten diran, umeek eskolan erabilten dabezan hizkuntzen arteko oreka zein dan, ikastetxean antolatzen diran eskola-orduz kanpoko ekintzak zein hizkuntzatan antolatzen diran edo irakasleen eta gurasoen arteko lankidetzeta zein dan.

## Eleaniztasunak eragina ete dauka umeen eskola-errendimenduan?

Umeek hizkuntza bat baino gehiago jakiteak ez deutso kalterik egiten eskola-errendimenduari. Aldiz, hizkuntza bi edo gehiago jakiteak hainbat abantaila ekarriko deutzaz umeari etorkizunean: **behar-aukera hobeak izatea, bi (hiru, lau...) hizkuntzatan komunikatu ahal izatea, bi (hiru, lau...) kultura ezagutzea...** Ganera, ikerketen arabera, bi hizkuntza ondo garatu eta bi hizkuntza horreetan erraztasunez ikas daikien umeek, ume elebakarrek baino eskola-errendimendu haundiagoa euki ohi dabe.

